

Azkorten ere, Santa Krutz eguna

Asteartean bertso saioa eta erromeria antolatu zituzten.
Larunbat honetan hitzordu berria izango da,
lasarte-oriatarrekin batera antolatuko dutena / 5

**Larre-Gainen amaitu
da txotx garaia.
Ixabel Santa Kruz
eta Joxe Lasarteri
elkarriketa** / 2-3

**"Parketarrak"
egitasmo berria
Andoainen,
euskararen erabilera
sustatu asmoz** / 8



Gogoz heldu diote festari

Parte-hartze handia izan da Santa Krutz jaiek iraun duten bost egunetan / Gehigarria

euskara bada errenta

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**

APIRILAREN
4TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





"Pandemiaren azken adarkadak halako grina piztu du jendearengan. Denboraldia txukuna izan da", adierazi du Joxe Lasarte urnietarrak. AIURRI

“Pandemiak erakutsi digu hari mehe baten menpe bizi garela”

IXABEL SANTA KRUZ ETA JOXE LASARTE LARRE-GAIN SAGARDOTEGIKO NAGUSIAK Igandean eman zuten bukatutzat 2022ko denboraldia, eta pandemia. Beldurrez tarteka, moldatzeko komeriek bestetan, baina kontent dira jendearen erantzunarekin

Andoni Urbistondo EREÑOTZU

Ixabel Santa Kruz Ereñotzuko Larre-Gain baserriko alaba da. Bertara bildu zen Joxe Lasarte urnietarra, Aierdi baserriko

semea. Hogeitazortzigarren sagardotegi denboraldia bukatu berri dute, justu ostalaritzan musukoen erabilera bukatu denean. 64na urte dituzte Ixabelek

eta Joxek, eta Arnaitz semeari testigantza emana diote, dagoneko.

Igandean bukatu zen 2022ko denboraldia. Nola joan da txotx garaia?

Ixabel Santa Kruz: Ondo. Hasieran nahiko beldur eduki genuen, muga dezente zeudelako indarrean. Denbora aurrera joan ahala gero eta gutxiago izan dira mugak. Jendeak jarrera ona izan du.

Joxe Lasarte: Pitxarra edo botilarekin zerbitzatu genuen sagardoa lehen asteetan, pilaketak saihesteko, baina sagardotegi gogoa sumatu dugu, batez ere azken asteetan. Esango nuke pandemiaren azken adarkadak halako grina piztu duela jendearengan. Denboraldia txukuna izan da.

Lastima musukoak eramateko beharra denboraldia bukatzeaz dela kendu dutela, ezta?

I.S.: Beno, ez genuke asko nabaritu. Gurean txotx garaia maiatzeko lehen igandearekin bukatzen dela argi izan dugu hasieratik, eta beti horrela izan da. Azken urteetan zerbait aurreratu da hasiera, baina, normalean, San Sebastian egunarekin hasten da txotx garaia, eta maiatzeko lehen igandearekin bukatu. Orain musukoa kendu izanak ez gaitu eragiten.

J.L.: Txotx garaia luzatuko bagenu, jendea etorri, etorriko litzateke, batez ere asteburuetan, baina uda gerturatzearekin bat, jendeak kanpora begiratzen du bazkaltzera joaterakoan, barrura baino gehiago.

Pandemia azkenetan ote den. Ze oroitzapen geratzen zaizue, bi urte geroago?

I.S.: Hasieran itxiera 15 egunerako izango zela esan zen, baina guk bigarren egunerako sumatu genuen denboraldi osorako izango zela, eta iazko txotx garaia ere ziurra ez zela berehala eman genion tankera. Etorri moduan hartu behar izan genuen.

J.L.: Gurean beste diru sarrera bat bagenuen, behintzat, eta gaitzerdi. Etxe bakoitzean egotera ezberdina izan liteke, egin dako inbertsioen arabera eta beste. Ez zen erraza izan. Ondo gogoan dut 2020ko martxoaren 13a zela, ostirala. Bazkariak eman genituen, eta gauean itxi egin behar izan genuen, eta erreserba egin zuten guztiei deitu. Denboraldi erdia libratu genuen, gaizki ez. Iaz xelebreagoa izan zen: %50eko edukiera, gauetan itxita, lau taldeak, bost etortzen zirenean, hiru alde batera eta bi bestera, Hernani gune gorrian sartu eta itxiera perimetrala jarri zenean, Hernanirekin muga egiten ez zuten herrietako bezeroak ezin etorri guregana, eta 80 lagunekin edukieran goia jo behar... Elikagaiak erosterakoan eta beste erotu ginen. Aginduak, gainera, goitik etortzen ziren, eta egun batetik bestera, moldatzeko tarterik gabe apenas. Duda putzu batean murgilduta aritu gara luze.

I.S.: Iaz gorabehera handiak izan genituen. Ireki, gero itxi, beste 15 egun ireki zen berriz, etxean positibo batzuk izan eta itxi egin behar... Garai xelebreak izan dira oso. Jendeak ere beti galdetzen zuen, erreserba egiten zuenean: ‘Ea ba, joateko modua daukagun’, esaten zuten askok. Dudak guk, eta dudak bezeroak, denek izan ditugu.

Zer erakutsi dizue pandemia zital honek?

J.L.: Hari mehe baten menpe bizi garela, eta momentu batetik bestera dena bukatzen dela. Nola jokatu halako egoera baten aurrean? Ezin asmatu. Guk lasai jokatzera erabaki genuen, itxi egingo genuela jakinarazi, baina abisu garbia jaso genuen; zintzilik bizi gara. Zertan ari

gara? Ondo ari al gara? Merezi al du gabiltzan moduan ibiltzea?

I.S.: Aurten ere hasi ginen, baina zalantza asko, zer etor zitekeen, zer ez, geure buruari galdera piloa eginez... Oraindik orain galdera asko egiten dizkiot nire buruari, ze tentsio betean ari zara lanean. Merezi al du? Osasunari ere begiratu beharko diogu ba...

Eta, ondorio garbiren bat atera al duzue?

J.L.: Sarri galdetu izan diogu ea merezi ote duen aritu garen bezala aritzea. Eta, batez ere, zertarako, ondare handiagoa izateko? Indar handia izan du ez garela guretzat bakarrik ari, etorkizunean, Arnaitz semea negozioari segida emateko asmotan baita. Gurea antolatua dago, emaztea ere jubilazioa hartzeko gertu da... Lan-moldea aldatu dugu pixka bat: mahai batzuk kendu, jende gutxiagorekin jardun, lasaixeago aritu, gauetan bezeroak jaitsi direla ikusita, akaso gau batzuk itxiko ote ditugun aztertu... Lanean aritzeko arazorik ez daukagu, baina lasaixeago aritu nahi genuke.

I.S.: Jende gutxiagorekin ohikoak diren bezeroak gusturago sumatzen ditugu, eromen puntu hori gabe. Agurtzerakoan solasalditxo izaten dugu bezero askorekin, urtero etortzen dira asko, eta harremana gertukoagoa da, bezero-jabe harremanetik harago.

Zergatik etortzen da jendea Larre-Gain sagardotegira? Zein da zuen ikurra, marka?

J.L.: Gertutasuna, famili giroa. Mahai askotan ezagunak izaten dira, kezkarik ematen ez diguten bezeroak, eta horrek lasaitasuna ematen digu.

I.S.: Baditugu Bizkaiko edo Nafarroa aldeko kuadrilak, urteroko bezeroak, eta horrek erakusten digu ondo ari garela. Ez gara enpresa gizon-emakumeak, baserria eta behi batzuk zituen familia arrunta baizik. Sagardotegia jarri genuen 1995ean, baina beldur handiarekin, ez baikenekien nola jardun. Hemen segitzen dugu, 28 urte geroago, beraz...

Zer esan dizuete bezeroek?

I.S.: Beldurra zutela. Eserita denbora gehiago egin dute, eta txotx-era gutxiagotan joan.

J.L.: Gurean upeletako pasilloa beti leporaino egon izan da, aurtent bitan, bakarrik sumatu dut



"Baditugu Bizkaiko edo Nafarroa aldeko kuadrilak, urteroko bezeroak, eta horrek erakusten digu ondo ari garela", dio Ixabel Santa Kruzek. AIURRI

antzeko egoera. Jendeak zuhurrago jokatu izan du, mahaian geratzeko joerarekin.

Geratzeko etorri al da sagardo botila, pitxarretik edateko joera?

J.L.: Ezezkoan. Nire ustez txotx-a nahiago du jendeak. Sagardotegien arima da txotx-a. Bazen garaia txotx-a bueltatzeko, eta jendearen aurpegiak ikusteko txotx-a egiten. Beldur eta kezka guztiekin, horiek ere agerikoak izan baitira, batez ere jende pilaketak handiak zirenean. Salbuespenak salbuespen, igandetan botila edo pitxarrarekin edan nahiago duten familia batzuk, adibidez, txotx-a eskatu dute ia denek.

I.S.: Aste barruan jendea iristen den genion, bospasei mahai bildu eta 'etorri orain txotx-era, jende gutxiago dabil-eta'. Eta jendea poz-pozik. Sagardotegien izaera txotx-a egitea da.

Ohiturak aldatu ote diren... Orain gazte jendeak larunbat eguerdia bakarrik nahi du, eta astegunetan sagardotegira joateko ohitura zuen bezero finko hori ere desagertuz joan da pixkanaka...

I.S.: Gaztea diferente dator. Aste barruan ere eguerdiak indarra hartu du. Ez gazteak, ja halako egonkortasun ekonomikoa duen

"SAGARDOTEGIA JARRI GENUEN 1995EAN, BELDUR HANDIAREKIN. HEMEN SEGITZEN DUGU"

betiko bezeroa. Badakite aste barruan lasaiego egongo direla. Gauak gutxitu egin dira asko, eta pentsatu izan dugu larunbat gauak ixtea, etortzen den bezeroa pasa eginda etortzen baita sarri. Ez du janariaz edo sagardoaz gozatzen, eta buelta batzuk ematen ari gara, larunbat gauak itxi eta lasaitasun hori irabazteko bidean.

J.L.: Guk lasaixeago jardun nahi izan dugu, eta bezeroa bueltatzen da, gustura egon den seinale. Dena ez da diru zorroa nola edo hala betetzea. Dena ez da bale sagardotegian, eta batzuk badute jarrera hori. Mozkortzea gauza bat baita, eta bestea jarrera txarra edukitzea. Gu ez gaude kobratu eta aio esateko bakarrik. Hori estimatzen du bezeroak. Egoera bere onetik ateratzeko arriskua badago, onena arrisku hori mugatzea, ez?

Pandemiari gabeko sagardotegi denboraldia iristeko gogoa izango duzue, dagoeneko.

I.S.: Jakina, baina denean, ez sagardotegian bakarrik. Enkarguak egitera joaten naiz Hernanira, eta musukoa ahaztu noizbait... Herritar dezentetik ikusi nituen musukoarekin kalean. Beldurra hor segitzen du.

"BEZEROA BUELTATZEN DA LARRE-GAINERA, GUSTURA EGON DEN SEINALE"

J.L.: Neu upeletan aritzen naiz, eta ikaragarria da jendeak pandemia, gerra kontuak eta haren ondorioak dituela hizpide bakarrik. Nahi gabe ere dena entzuten duzu, eta jendea kezkatuta, urduri sumatzen dut, bizipozik gabe, Ukraina, erregaiaren prezioa... Tarteka norbaiti esan izan diot: 'aizu, sagardotegian zaude, gozatu, gero ere izango duzue-eta arduratze denbora'. Oso astuna da sagardoaz hitz egiten, gozatu behar den unean erregaiaren prezioaz hitz egiten egotea. Tarteka gaizkitu ere egin naiz.

Salneurrien igoera orokorra ematen ari da. Gaia mahai gainean jarri duzunez, Joxe, nola moldatu zarete Larre-Gainen?

J.L.: Asko begirata. Generoa ekartzen duenarekin hitz egin, bezeroa bera jabetuarazi neurriko igoera adostu dugula esanez... Gure irabazi margena murriztu edo mugatu dugu, noski. Igo zaigun guztia bezeroaren poltsikora eraman izan bagenu, kitto. Bezeroak mantentzen saiatzea erabaki dugu, haiei esker bai-kaude hemen. Bizpahiru euro igo ditugu, bai, baina neurrian beti. Harreman sare ikaragarria egin dugu bezero askorekin, eta orain, denboraldia bukatuta,

"ARNAITZ SEMEAK DARAMA DAGOENKO NEGOZIOAREN ZATI HANDIENA. GU LAGUNTZEKO GAUDE"

otorduren bat egiteko eta beste elkartzeko gara horietako batzurekin. Ez gara lanean ari diren makina soilak, tratatu zuzenak asko betetzen gaitu.

Eta orain, denboraldia bukatuta zer, lasai-lasai?

I.S.: Ez, ez, lana badago, sagardoa botilaratu eta beste. Egia da beste modu batera egiten duzula lana. Dagoeneko ez zaude jendearen baitan, hain ordutegi zurrunarekin, baina lana, egon, badago.

Arnaitz semeak hartu du, dagoeneko, lekukotza. Zer moduz ikusten duzue etorkizuna?

I.S.: Berak darama dagoeneko negozioaren zati handiena. Ez dauka lan errazik, baina gu laguntzeko gaude. Oihana eta Eider alabek ere laguntza handia ematen dute, denboraldian zehar. Ostalaritza lanbide gogorra da oso. Beste lanen bat bilatu eta hura lehenestea erabakiko balu bere erabakia errespetatuko genuke, sagardotegi bat eramatea lan zaila baita. Ordu asko sartzen ditu.

J.L.: Gustura dabilela dio, eta gu pozik. Etxekoa da, gainera. Berak erabaki behar du. Gure langileak ondo zaintzen saiatzen gara, etxekoak balira bezala, izan lanean, otorduak egiterakoan, atsedena hartzeko edo soldata erabakitzerakoan. Sagardotegian aritzea lan gogorra da, eta saritu egin behar da. Semeak lanbide honetatik bizimodua ateratzeko modua badu, ezin hobe.



Inguru osoa pankartaz josita dago. AIURRI

Urik eta argindarrik gabe

Andoain eta Urnieta arteko mugan, Xoxokarako bidean dagoen etxe multzoan, bizilagunak haserre daudela agertzeko pankarta ugari eskegita daude. Ur eta argindar hornidurarik gabe daudela salatzen dute, aste tartean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Pankartaz josita agertu zen aurreko astean Andoain eta Urnieta bitarteko biribilgunean, Xoxokara igoeran dagoen Saletxeberriko etxebizitza-blokea: "Eda-

teko ur garbia denon eskubidea" edota "Saletxeberri legalizazioa ya" leloekin, besteak beste. Bizilagun batek azaldu lez, 2010ean ur eta eta argi-hornidura eten zuen Udalak. Harrezkero, insta-

lazio partikular bat dute etxebizitzan. Hala, matxura izan dute eta egunak daramatzate urik eta argindarrik gabe.

Datorren astean gaia, luze eta zabal, astekarian.



AIURRI

Kantazaun taldearen itzulera

Kantazaun taldea bere ohiko dinamikara itzuli da. Hala, aurrerantzean, hilabete bakoitzeko azken ostiralean, kantu-kalejira bat egingo du taldeak, ordu eta erdiz,

euskal kantutegia oinarri hartuta. Abiapuntua arratsaldeko 19:00etan izango da San Juan plazan, eta, ondoren, kalez kale joango da.



Izena emateko aukera zabalik dago. Argazkian, dinamizatzaileak. ESPAZIOLUNARRA

Neska gazteei begirako Jabekuntza Eskola martxan

Udalak udaberriko programazioa jarri du abian emakumeentzat, ahalduntzea sustatzeko xedez

Erredakzioa URNIETA

Jabekuntza Eskolaren barruan, neska gazteek protagonismo berezia izango dute, izan ere, proposamen bat garatu da haien-tzat bereziki, Espazio Lunarrak (talde psikoterapeutiko holistiko eta feminista) dinamizatuta: "Neska gazteentzako Jabekuntza Eskola".

Horren bidez, bereziki neska gazteen interesei eta beharrei erantzuten saiatuko da programa, Udalaren esanetan. Momentuz izena eman duten neskekin eskolaren egitaraua adostu berri da eta lehenengo saioa maiatzaren

13an izango da, 17:30ean, Lekaio kultur etxean. Genero estereotipo eta rolak, tabu eta mitoak landuko dira egun horretan. Gainerako saioen gaiak berriz, ondorengoak izango dira: lodifobia, nola egin aurre jarre-ra matxistei eta emakume erreferenteak historian.

Izena eman, maiatzak 9 arte

Interesa duten neska gazteek izena emateko aukera dute maiatzak 9 arte edo lekuak bete arte. Horretarako, ondorengo telefono zenbakira deitu edo whatsapp- ez idatzi beharko da: 688 654 548.

Antia literatur lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia ostiral honetan

izango da, 18:30ean hasita. Bi kategoria egon dira aurtan, haurrena eta gazteena. Kris Solano eta Amaia Oreja zuzenean ariko dira. Hitzordua zuzenean jarraitu gonbidapenak eskuratu behar dira Sarobeko bulegoan.





JENDETZA IBILI DA JAIETAN, GIRO EDERREAN

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA DOAN




ERREMONTARI
Sagardocdeen triapelketa

MAIATZAK 9 ASTELEHENA | 19:00-TATIK AURRERA

GOIKOETXEA V · BARRENETXEA IV vs ALDABE · LARRAÑAGA

• SETIEN • ANSA II · JUANENEA vs EZKURRA II · ZALDUA I

GURUTZETA



ORIA MENDI

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

sukia AIURRI Orona



Gora Kaletxiki Txaranga eta Lebiton Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsa, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI



Irati de la Revilla, Pako Arnaiz eta Jon Iturralde, aurtengo pregoilariak. Elkartearen ibilbidea gogoan hartu zuten, eta jaiaz behar bezala gozatzeko deia luzatu zuten. AIURRI



Dozenaka lagun elkartu zen Santa Krutz zubian, ostiral arratsaldean. Zumea kalera edo Kale Nagusira begira jartzen hasita, jendetza zegoen. AIURRI

Aurtengoa, gogoangarria

Bi urteko etenaldiaren ostean, andoaindar askoren artean jaiaz gozatzeko gogo nabarmena izan da. Parte hartze handia izan da ekitaldi guztietan. Festa borobila izateko, eguraldiak ere bere aletxo utzi du. Ia euririk gabeko Santakrutzak izan dira

Erredakzioa ANDOAIN

"Gora Santakrutzak!", Irati de la Revillaren eta Jon Iturralderen oihu ozena jaiaren aldeko gonbitea izan zen. Zuzena, indartsua eta bizipozez betea. Lehenago haurrek eman zioten hasiera jaiari, Zumea plazan. Ostiralean hasita eta bost egunez Andoaingo herrigunea jai nagusitu da. Dozenaka ekitaldi antolatu dira, ehunka lagunek parte hartu dute eta ez da zorigaitzoko gertaerarik izan. Eta, gainera, euriterik gabeko egunak izan dira. Beraz, aurrikuspen onenak gaititu direla esan daiteke.

Festaz gozatzeko gogo

Lebitonen konpartsaren atzean, pregoilariak begira edota Beko-plazako emanaldietan festarako gogo bizia antzeman da jaietan. Pandemia tarteko izan bada ere, egitarauan klasiko ziren hitzordu gehienak biziberritzeko gogo zegoen. Horien artean, janari eta edateari loturikoak. Bakailao txapelketa, sagardo dastaketa, talo jatea eta txakolin dastaketa horren adierazle izan dira. Pintxo lehiaketak ere herrikide

askoren arreta bereganatu zuen, sareetan asko eta asko izan baitira Hiru jatetxeak zoriondu dituztenak. Egunez ekitaldi asko izan dira, eta horien artean haur krosa eta harri jasotzaileen de-

BIDEO ETA ARGAZKI UGARI IKUSGAI DAUDE AIURRI.EUS GUNEAN, SANTAKRUTZAK'22 ATAL BEREZIAK

safioa izan dira ikusleen aldetik nabarmenenak. Musika emanaldiak dagokionez, Alargun Beltzak eta Zozongo taldeen kalejirak ikusle askoren gogoko izan ziren. Gauez, berriz, Gozo Gozo eta Ingo al deu? taldeen emanaldiak bikainak izan ziren.

Astearte iluntzean, hainbat lagunek amaiera sinbolikoa eman zioten jaiari Santa Krutz elkartearen kanpoaldean. Ikurriña jaitsi zuten mastatik, 2023rako berriro zintzilikatzeko.



Haur pregoiarekin abiatu ziren Santakrutzak, ostiral arratsaldean. AIURRI



Zumeatarra elkartek emanaldia eskaini zuen Santa Krutz elizan. AIURRI



Santa Krutz jaien hasierako emanaldia eskaini zuen Alberto Agirre abesbatzak. ARGINDAR



Desafioan parte hartu zuten lehiakideak, antolatzaileekin batera, desafioa amaitu berritan. AIURRI

Kirol lehia ikusgarria

Jaien hasierako hitzordu berritzailea izan zen, Bekoplaza ikusminez bete zuena. 52 eta 80 kiloko harri traketsekin lanean aritu ziren hamar harri-jasotzaileak. Lehen edizioa izateko, bikain atera zen Santa Krutz Harri Txikien txapelketa

Erredakzioa ANDOAIN

Hamar lagunek hartu zuten parte lehiaketan: Leire Otermin, Ane Ezeiza, Aritz Otermin, Eñaut Etxeberria, Iñaki Altzuguren, Ander Olasagasti, Ekain Bellanco, Eukén Villasante, Peio Manterola eta Sergio Chorro. 52 eta 80 kiloko harri traketsekin lanean aritu ziren hamar harri-jasotzaileak. Ikusmin handia piztu zuen txapelketak; Bekoplaza gainezka jarri zuten ikusleek, eta etengabe animatu zituzten

harri jasotzaileak. Gizonezkoek bi harriekin bi minutuko saioak egin zituzten. Aritz Otermin (996 kg.), Eñaut Etxeberria (944 kg.) eta Iñaki Altzuguren (916 kg.) nabarmendu ziren.

Emakumeak, berriz, 52 kiloko harriarekin aritu ziren lehian. Bi lehiakide izan ziren, buruz buru aritu zirenak. Berdintasuna nagusitu zen, bi minutuko bi saiotan hamarna altxaldi egin zituzten Leire Oterminen eta Ane Ezeizak, eta lehenak esku-

ratu zuen txapela, kiloetan ari-nagoa izateagatik.

Argazki-bilduma eta parte hartzaile bakoitzaren altxaldien bideo bana ikusgai daude Aiurri.eus webgunean.

OTERMIN ANAI-ARREBAK NAGUSITU ZIREN HARRI TXIKIEN LEHEN TXAPELKETAN



Ander Olasagasti. AIURRI



Ane Ezeiza. AIURRI



Iñaki Altzuguren. AIURRI



Ekain Bellanco. AIURRI



Sergio Chorro. AIURRI



Eñaut Etxeberria. AIURRI



Leire Otermin, aurtengo irabazlea. AIURRI



Aritz Otermin, aurtengo irabazlea. AIURRI



Eukén Villasante. AIURRI



Peio Manterola. AIURRI



Jai Batzordekideei eta lagunei geroz eta festazale gehiago batzen zaizkie larunbateko auzo bazkarian. AIURRI



Gautxorien hitzordura lagun asko hurbildu zen. AIURRI



Maizorri Txalaparta taldeko kideak eta Puntuka bertso eskolako kideak elkarrekin aritu ziren kalejiran. AIURRI

Jendetza auzo bazkarian

Antolatzaileek emandako datuen arabera, 280 lagun elkartu ziren larunbateko auzo bazkarian. Azken urteetan egin den handiena izan da, eta geroz eta gehiago dira haur eta gaztetxoak dituzten familiak. La Jodedera taldeak alaitu zuen bazkalostea

Erredakzioa ANDOAIN

Kale Nagusian gora eta behera ibiltzea ohituta daude andoaindarrak, baina urtean behin beselako erabilera hartu ohi du kaleak. Festazaleen janleku bilakatzen da, bazkariari eta

kaleari xarma berezia eskainiz. Marka guztiak hautsi dira, gaienra, aurtengoan. Eguraldia lagun, dozenaka mahai jarri behar izan zituen antolaketa taldeak bazkaltzeko zain zeuden koadrila eta familia guztiei tokia egiteko.

Eguzkitan bero eta itzaletan goxo egon ziren. Bazkalostea girotzeko La Jodedera taldeak Kubako doinuez bete zuen Kale Nagusia. Arratsaldeak aurrera egin ahala, mahaiak kendu eta kalea lehengora itzuli zen.



Lehen lerroan, Aitor Amutxastegi. Atzean zeuden Guillermo 'Willi' Alcalá, Rafael Honorato, Antonio Goia eta Bixente Zabala. AIURRI



Dozenatik gora postu ipini zituzten artisautza azokan. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



AIURRI



Urki dantza taldeak emanaldia eskaini zuen larunbat goizean. AIURRI



Dantza-sorta eskaini zuen Zumea plazan. AIURRI

Bekoplaza jendez lepo, Ingo al deu? taldearekin

Atzera egin beharko litzateke denboran, nabarmen, Bekoplaza larunbat gauzez hain beteta ikusteko. Ingo al deu? taldeak emanaldi gogoangarria eskaini zuen, atzoko eta gaurko kideak taula gainera igoz. Iraganen hainbat emanaldi eman zituzten, festaz festa. Eta

iraganen egindako lan horrek arrastoa utzi duela argi geratu zen. Aurtengo jaietan Gozo Gozo eta Ingo al deu? herriko taldeek erromeri bana eskaini dute. Izan dira talde gehiago, baina herrikoek arreta berezia piztu dute.



Nika Murillo eta Luisa Aguado, Kotoi elkartekoak. AIURRI



Aure eta Jose Manuel Rey, Hogar Extremeñoakoak. AIURRI



Juanjo Aiestaran eta Jesus Martin, Karrika elkartekoak. AIURRI



Jesus eta Pedro Alvarez, Irunberri elkartekoak. AIURRI



Kale Nagusian zirenek bakailaoa dastatzeko aukera izan zuten. AIURRI



Joxe Manuel Makazaga eta Mikel Irigoras, Ontza elkartekoak. AIURRI



Juan Mari Rodriguez eta Carlos Rodriguez, Santa Krutz Peñakoak. AIURRI



Antonio Nogales eta Eduardo Fernandez, Andoaindarrakoak. AIURRI



Iñaki Artano eta Iker Telletxea, Zumeatarra elkartekoak. AIURRI



Iñaki Irulegi eta Antonio Guedejo, Batzokikoak. AIURRI



Helduen krosan irten ziren partaideen argazkiak ikusgai daude Aiurri.eus gunean. AIURRI



Etorkizuna izateko ezinbestekoa da harrobiari tarte eskaintzea. Andoingo Txirrindulari Eskola erreferentziako eskola da Gipuzkoan. AIURRI



Udal Musika Eskolako bi konboek Juanita Alkain plazan kontzertua eskaini zuten. Fino's Band-ek kantu ezagunak jo zituen, bertaratu ziren gozamenerako. AIURRI

Igande goiza, kirolariena

Normaltasun berriarekin herri lasterketak ere lehengora itzultzen ari dira. Zumeatarrak maiatzaren leheneko lasterketa antolatu zuen, nagusiki herriko lasterkarien parte hartzearekin osatu zena. Haur lasterketak familia askoren arreta bereganatu zuen

Erredakzioa ANDOAIN

Igandean, goizeko 08:00tan Udal garbitzaileen brigada jotake ari zen lanean. Beranduxeago, Zumeatarra elkarteko hogeitaz lagunek taldea elkartuta zegoen. Hura ere brigada modukoa zen,

jertse gorri bana jantzita, lasterketa normaltasun osoz igaro zedin. Lasterkariak eroso aritzeko ezinbestekoa da bolondresen lana. Baita ondorengo lasterketan ere. Andoingo Txirrindulari Eskolako Kaleberri-

tik Kale Nagusirainoko zirkuituan, lasterketa polita antolatu ohi dute. Igande goiza kirol jarduerekin abiatu zen. Proba guztien artean arreta gehien haur krosak bereganatu zuen. Jendetza batu zen Zumea kalean.



Herri Danborradak kalejira egin zuen igande arratsaldean. Kide berri ugari elkartu dituzte, aurtengoan. AIURRI



Andoingo Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia Basteron iragarri bazuten ere, Kale Nagusiko Zasa parean aritu zen azkenean. Latino doinuak eskaini zituzten. AIURRI



Gaztañaga eta Aburuzaren arteko berdinketa hausteko erronda berria egin zuen epaimahaiak. Txapela, azkenerako, Andoainen geratu zen. AIURRI



Makaldegian jarritako karpa berezian dozenaka koadrilla elkartu zen. AIURRI



DJ Bull Esteberen kamioian ibili zen kalejiran, Makaldegian hasi eta Bekoplazaraino. Irurarrak disko jartzaile lanetan jarraitu zuen, txosnagunean. AIURRI



Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Euskaraldiaren Txokoaren estreinaldia egin zuen Santa Krutz jaietan. Haur ugari igaro zen, jolastera eta marraztera. AIURRI

Astelehen buruzuririk ez

Santa Krutz jaietan Kuadrillen eguna astelehenarekin ospatu zen, hartara gazteek parrandarako egun bat gehiago izan zezaten. Ostiraleko eta larunbateko gaudiak igarota, astelehenean goizetik hasitako ospakizuna izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Kuadrillen eguna parte hartzaile izan zen, giro ederrean igaro zena. Goizetik nabari zen festarako gogoia zegoela, koadrillen arteko jolasak hasi zirenetik. Bazkarian jendetza elkartu zen

Makaldegian. Sagardo kupelen inguruan eta mahaien bueltan bakoitzak eramandako bazkariak gozatzeko aukera izan zen. DJ Bullek Esteberen kamioian agerpena egin zuenean, Hammelin zirudien. Atzetik segika izan

zituen koadrilla gazteak. Mani-festazio modukoa zen, kalez kale zabaldu zena. Bekoplazan amaitu zen kamioi festa, txosnagunean jarraipena izan zuena. Astelehen buruzuria izateko, Andoainen martxa ederra zegoen.



Bazkariak eta karaokeaz gozatu ostean, DJ Bullen musika kalejiran murgildu ziren gazte ugari. AIURRI



Zezen suzkoak haur eta gaztetxo askoren arreta bereganatu zuen, bereziki bigarren gauan. Izan ere, Lebiton konpartsak bakarra ez baizik eta bi zezen atera zituen. AIURRI



Zezen berriaren estreinaldia maiatzaren 2an izan zen. Lebiton buruhandiak piztu zuen suzuria, Olajauna etxearen parean. Hortik hasita, zezena jendartera abiatu zen. AIURRI



Ezpata Dantzaren sorreran 2008an, Urkik gidari izan zituen Juan Antonio Urbeltz eta Iñaki Arregirekin batera. AIURRI

Ikurriñaren jaitsiera

Pandemia tarteko, aurtengoa izan da 2019-2023 agintaldiko lehen Ikurriñaren jaitsiera. Eskopeteroak eta txistulariak lagunduta, Urki dantza taldeko kideekin elkartu ziren Santa Krutz elizaren inguruan. Eskopeteroen artean bi emakumezko: Ane Jalon eta Rocio Arias

Erredakzioa ANDOAIN

Santa Krutz jaietako ekitaldi esanguratsuenetarikoa da Ikurriñaren jaitsiera, eta aurtengoan berrikuntza aipagarriak eman ziren. Eskopeteroen artean gidari lanetan lehen aldiz aritu

zen Lamberto Otermin. Eta eskopeteroen artean emakumezko bi kide: Ane Jalon eta Rocio Arias. Txistulariei dagokionez, Jon Ander Belamendia lehen aldiz aritu zen zuzendari lanetan. Dantzarien artean Maite

Sagaseta kapitain lanetan aritu zen.

Udal korporawzio honentzat lehen kalejira izan zen, eta ikurriña eraman zuen Alex Huitzi zinegotziak eta aginte-makila Maider Lainez alkateak.



Huitzik eraman zuen Andoaingo ikurriña, eta Lainezek aginte-makila. AIURRI



Rocio Arias eta Ane Jalon eskopeteroak. AIURRI



Txakoli dastaketa egin zuten, Santa Krutz eguneko meza eta gero. AIURRI

Pintxo lehiaketa

Txitibar, Amama Klaudia, Muga, Txuribeltz, Gaztelutxo, Txindoki, Irunberri, Traiñerum, Hiru eta Tokitxo tabernetan pintxo bereziaz gozatzeko aukera izan zen. Hiru izan zen, azkenean, onena. Aurreko edizioetakoak: Urkiola (2013), Traiñerum (2014), Bastero (2015), Hiru (2016), Bastero (2017, 2018 eta 2019) eta Hiru (2022).



AIURRI



Hiru aurtengo irabazlea epaimahaikideekin batera. AIURRI



Azken urteetan euskal dantza saioarekin amaitu dira Santa Krutz jaiak. AIURRI



Busez ermitaraino iritsi ostean, bisitariak ermitara sartu ziren Xabier Murua Urnietako apaizaren meza entzutera. AIURRI

Ospakizuna Azkorten

Azkortera hurbildu zirenek Xabier Murua apaizak emandako meza entzun zuten lehenbizi, eta ondoren, Ion Ansorregi eta Anjel Larrañagaren trikiti doinuak. Larrañaga beraren eta Mikel Mendizabalen bertsoekin amaitu zen goizeko erromeria

Xabier Lasa URNIETA
Datorren larunbatean, hilaren 8an, Azkorten bigarren erromeria ospatuko da, Lasarte-Oria eta Urnietako udalek Ttakun elkartearekin elkarlanean antolatuta. 11:00etan meza izango da, eta ondoren, herri kirolek, Ttiriki-Ttarraka taldeak eta bertsolariek girotuko duten erromeria ospatuko da. Autoentzat itxita egongo da errepidea, eta bus zerbitzua doan jarri dute, Lasarte-Oriatik zein Urnietatik. Urnietak (10:00-13:30) Pintore Kaletik abiatu eta Azkorterako joan etorri egingo du (azken igoera 12:00etan). Bestalde, antolatzaileek, “salda, txorizoa, odolkia eta edaria tabernan” izango dela ziurtatu dute.

Hamaiketako eza, hizpide
Anjel Larrañaga eta Mikel Mendizabalek elkarrekin egin zuten saioan, besteak beste, autobusa eta bertsozaletasuna, eta, erromeriak girotzeko beharrezkoak diren pintxo eta edariak izan zituzten aipagai. Hain zuzen, meza ostean, bertan parte hartu zuten fededun batzuek, autobusean sartu eta Urnietara jaitsi

ziren, Azkorteko festan ondoren zetozen trikitilari nahiz bertsolarien saioarekin interes handirik jarri gabe. Hori zela eta, hona Larrañagak bota zuen bertsoa: Ai, Mendizabal esango dizut hemengo gauzak zer diran, bakarren batzuk aldegingo dute autobusa eta segidan. Beste batzuek aurrean daude bertsoaren ikusmiran, hor ikusten da euskaldun eta bertsozaleak zein diran. Bestalde, aurtan Azkorteko ermitaren aterpean taberna zerbitzurik ipini ez zela eta, kritikarako aldartea hartu zuten bi bertsolariek, puntuka ari zirela.

1/ Mikel Mendizabal:
Hemengo festarekin ari gera kunplitzen.

Anjel Larrañaga:
Gauza argirik asko ez degu aurkitzen.

Mikel Mendizabal:
Baina zerbait badela zait neri iruditzen.

Anjel Larrañaga:
Tragua hartuta saiaz egon gaur bizitzen.

2/ Anjel Larrañaga:
Bertsolariak behar du tragoa ondoan.

Mikel Mendizabal:
Eta orduan bertsoa errazago gogoan.

Anjel Larrañaga:
udaletxea ez dabil lenengo moduan.

Mikel Mendizabal:
esan alkateari gero joandakoan.

3/ Mikel Mendizabal:
Etorri ote da ba zuen alkatea?

Anjel Larrañaga:
Baina ez da preziso denak esatea.

Mikel Mendizabal:
festetan gaude eta behar da pakea.

Anjel Larrañaga:
Estalpe hau nahi nuen tabernaz betea.

4/ Anjel Larrañaga:
Non dira tragoa ta non dira pintxoak?

Mikel Mendizabal:
Urru samar daude Guretzat, gaixoak.

Anjel Larrañaga:
Horren desiatutzen zeuden gehientsunak.

Mikel Mendizabal:
gero beteko ditugu gure kapritxoak.



Argazkiak eta bideoak ikusgai daude Aiurri.eus gunean. AIURRI



Eramua bedekatzeko ohiturari eutsi diote, beste urte batez. AIURRI



Larrañaga eta Mendizabal bertsolariak, meza osteko emanaldian. AIURRI



Erromeririk ez dago dantzaririk gabe. Argazkikoek ez dute inoiz huts egiten. AIURRI



Parketarrak egitasmoa. URTXINTXAK

Euskararen erabilera areagotzeko egitasmo berria

Andoaingo Udalak eta Urtxintxa erakundeak "Parketarrak" egitasmoa abiarazi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea da helburu nagusia, eta horretarako herriko bi jolasgune nagusietan haur txoko modukoak antolatuko dituzte. Ekainaren 1a bitarte, haurrei euskaraz aritzeko eta jolasteko aukera eskainiko zaie Goikoplazan eta Zumea plazan. Goikoplazan asteartero, eta Zumea plazan asteazkeneko. Adin tarteari dagokionez, bi mailatan antolatuko dituzte hitzordua. Udalak oharrean adierazi duenez, txiki-txikien kasuan beharrezkoa izango da gurasoen inplikazioa: "3 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familien kasuan behar beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea eta jolastea". 6 eta 9 urte bitarteko txokoan, berriz, haurra bakarrik egon daiteke. Txikien hitzordua 17:15etan hasiko da, eta 6-9 urtekoena 18:15etan. Bi kasuetan iraupena ordubeteko izango da.

Haur guztiei zabalik

Doakoa izango da eta aurretik ez da izena eman behar, nahikoa izango da bertaratzea. Andoaingo Udalak jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea lortu nahi du, Parketarrak egitasmoaren bitartez.

Edizio berria aurkeztu dute

Alexander Huitzi Andoaingo Udaleko Euskara zinegotziak eta Esti Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendariak aste honetan egin dute Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien edizio berriaren aurkezpena. Euskal Herri mailako erreferentziako lehiaketa da. Aurten ere bi sari izango dira: "Kazetaritza saria" eta "Komunikazio saria".



UDALA

PARKETARRAK

Egunik onenak
ELKARREKIN
euskaraz jolasean
ANDOAIN

Maiatzak 10, 17, 24 eta 31
Astearteak
GOIKOPLAZA

Maiatzak 11, 18, 25 eta
ekainak 1
Asteazkenak
ZUMEA PLAZA

ZABU-ZIBU (3-5 urte)
17:15
TXIRRINTXON (6-9 urte)
18:15

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Leire
 Leire Rekaldes
 maiatzaren 6an 33
 urte beteko ditu.
 Zorionak! Segi
 horrela, irribarretsu
 beti bezala. Muxu
 handia. Etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Oier
 Oier Aguirrek 10
 urte beteko ditu.
 Zorionak muxuak
 eta txaloak gure
 txiki/handiari Segi
 olaxe, jator-jator.



ANDOAIN
Zorionak Odile
 Odile Igarritzek 12
 urte beteko ditu
 maiatzaren 7an.
 Zorionak eta ondo
 ospatu!

Urte askotarako

www.aiurri.eus
 Zorion agurra
 atalean
Whatsapp bidez:
 619 16 35 37
diseinua@aiurri.eus
Arantzia 4-5,
behea Andoain
Telefonoa:
 943 300 732

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
 Urnieta: 943 006 680.
 Osasun Aholkuak: 900 203 050.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 9, astelehena.
 16:30-20:30. Anbulatorioa, Andoain.
Maiatzak 23, astelehena.
 16:30-20:30. Urnieta.



Nerea Redondo, Donostian duten bulegoan. AIURRI

“Nork bere konfiantzan *klik* egin behar du”

NEREA REDONDO OTAMENDI FORMAKUNTZA ERREZTAILEA

Martxan da udaberriko Jabekuntza Eskola. Tartean, “Konfiantza sortu eta elikatu” tailerra. Maiatzaren 7an eta 14an, izango dira hitzorduak, 09:30-13:30 artean

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

"Barne egoeratik datorren sentimendua" da Nerea Redondo Otamendi formakuntza errezailearentzat konfiantza, "burutik askatzen gaituena". Funtzionatzeko, pentsatzeko nahiz sentitzeko erarekin du harremana. Hain justu ere, egurenorokoa norbanako orori zeharkatzen dion aferari eutsiko dio aurki Andoingo Jabekuntza Eskolan emango dituen tailerretan: "Konfiantza sortu eta elikatu".

Inoiz bukatzen al da konfiantza elikatze prozesua?

Pertsona bakoitza ezberdina da, eta nork bere ibilbidea dauka

konfiantzarekin, bizipenek baldintzatuta. Esperientziak baliabideak ematen dizkigu, batzuetan erabilgarriak eta beste batzuetan ez. Baina tresnak izatea onuragarria da, behar den momentuan barrenak indartu ahal izateko.

Konfiantza lantzeko, autoestimua, motibazioez edota zaintzaz ere jardun behar gara, besteak beste. "Noiz sentitzen zara erosoago: zaintzaile rolean edo zaindua izatean?". Emakumeok oraindik ere zaintzaile-lanetan sentitzen gara erosoan. Galdera horrek lotura handia du konfiantzarekin. Izan ere, gusturago gaude rol horretan, inor

molestatu gabe, gauzak azkarra-go eta hobeto egiten ditugula sinistarazten digun ego txikia daukagulako barruan.

Zer behar du norbakakoak besteengan konfiantza sentitzeko?

Bakoitzak egiten duena bizirauteko egiten du, bere borondate onenarekin. Finean, animaliak gara eta bizirauten laguntzen digute lehen mailako sentimenduek: haserre, sorpresa, nazka, beldurra...

Nola hitz egiten diogu geure buruari? Nola hitz egin digute? Eta horretatik zer hartu dugu eta zer ez? Konfiantza lantzean, nork bere buruarekiko duen maitasuna, segurtasuna zein

epaia sartzen dira tartean, eta aurreiritziek ere konfiantza baldintzatzen dute.

Ongizatearen jendarteak makina bat mezu bidali dizkigu, eta gudan izugarritzeko pisua dutela jabetu gara, konfiantza praktikan ez edukitzeko: izan zaitez indartsu, izan zaitez adeitsu, atsegin eman. Horrez gain izan zaitez perfektua, eta eraginkorra, egin gauzak azkar eta ondo. Eta, gainera, ahalegindu zaitez. Mezu horiek konfiantza ukitzen dute, bai besteengan, bai nork bere buruarengan.

Zeure burua maite baduzu, konfiantza sentituko duzu, alegia, zeure *forofa* baldin bazara, zeure buruari lagun onenari bezala hitz egiten badiozu eta epaitzen ez baduzu.

Besteek gudan sinisten dutela sentitzeko, beharrezkoa al da guk geure buruan sinestea?

Ez du zertan. Bada jendea gida-tzeko gai ez dena, baina beste norbaitekin kotxean gustura joaten dena. Alabaina, maiz, beldurrak lehoi baten aurrean egongo bagina bezala uzten gaitu, eta geldi-geldi gelditzen dira batzuk; beste batzuk hanka egiten dute ziztu bizian. Halere, argi dago gurea izan behar dela segurtasuna; besteek egiten dutenaren arabera baldin badator-kigu beti, ez dago gure bizitzaren gaineko kontrola izaterik. Hori landu egin beharra dago.

Konfiantzia apurtu dala sentitzen dugunean, zein da gakoa berriro sortzen hasteko?

Konfiantza eraikitzea asko kostatzen da, baina segundu bakarrean apurtu daiteke. Hala, ditugun bizipenek asko baldintzatzen dute osaketa, baita egiten den lanketak ere. Justizia, maitasuna, aurreiritziak eta abar dugun ulertzeko moduari lotzen zaio. Baldintzagarria da guztiz: nola hitz egiten diogu geure buruari? Eta geure buruan? Gainera, badira gurean batere lagun-garriak ez diren esaera zaharrak, tartean, "sasian zarraparra de-nean, ke gabeko surik ez". Jendearengan konfiantza dugula pentsatu arren, sarri, ez dugu horrela sentitzen. Denbora eskaini behar zaio, mesfidantzak min ematen duelako.

Lotura al du autoestimuekin?

Konfiantzaz jokatzeko garrantzitsua da autoestimua lantzea. Lehena urratzen zaigunean, bigarrena kaltetzen da. Gainerakoekin alderatzeko joera dau-

kagu; zergatik izan behar dute supermerkatuko sagar gorri eta distiratsuak azokako askotariko ezaugarritako sagarrak baino hobeak? Guztiok gara perfektuak gure inperfekzioan.

Generoak zein adinak pisua al dute konfiantza hizpide denean?

Adinaren kasuan, ez dut hain argi ikusten, bakoitzaren bizi-ibilbideak markatzen duelako hori. Aldiz, generoan, bai. Emakumeoi makina bat rol eta uste egotzi zaizkigu. Gainera, gudan defentsa-mekansimoak sorrarazi dizkigute jazarpenek, sexu-erasoek, komentarioek, gutxiespenak eta beste egoera askok; horietako bat da mesfidantza. Halaber, zenbait alorretan, emakumeok irabazi egin behar izan dugu gizonei hasieratik eman zaien konfiantza.

Sare sozialek harremanetan hain-besteek indar duten garaiotan, nola eragiten dute horiek konfiantzan?

Mesfidantzazko aurreiritziak ditut nik sare sozialekiko, gudan duten eraginaz ohartzen ez garelako iruditzen baitzait. Aurrez aurreko harremanetan konfiantza ezaz jokatu eta sare soziale-tan guztiz kontrako jarrera hartzen duen jende asko dago. Eragin handia dute, eta mesfidantza elikatzen dute, beste gauza batzuen artean.

Andoingo Jabekuntza Eskolan horretaz guztiaz hitz egiteko txokoa osatu duzue.

Konfiantza eta konfideltziasun gunea izango da tailerra. Bertan, nork bere funtzionatzeko eraz hausnartzeko aukera aurkituko du, kontzientzia hartu ezean, ez baitago aldaketarik. Barre egingo dugu eta aurreiritziak kanpoan utziko ditugu. Bi larunbat izango dira, eta goizez elkartuko gara lau orduko saio bana egiteko. Horrek ere aukera eman-gu digu egiten ditugun hausnarketak praktikan jartzeko lehen aste burutik bigarrenera bitartean. Bigarren saioan hausnarketak horietan sakonduko dugu, ikastaroa borobiltzeko. Bestalde, nahiko jendek eman du izena jada, nahiz eta oraindik tokia libre dagoen, norbaitek nahi izanez gero. Emakumetik emakumera konplizitatea sortzen da eta hori magikoa da: tresnak sartuko dizute motxilan, etoretorkizunari begira gustorago eta lasiago bizitzeko. Ziur nago oso emaitza interesgarriak izango ditugula eta nork bere konfiantzan "klik" bat egingo duela.